



Ikasteko Kooperatu Kooperatzen ikasi (IK/KI)

1

Askotariko Adimenen inguruan aipatutako guztia kontuan hartuz (**ikus. Askotariko Adimenak**) metodologia egokiak aurrera eramaten laguntzen digu, eta eguneroko martxa aldatzera bultzatzen gaitu, bai geletan baita geletatik kanpo ere.

Ikasketa Kooperatiboa orain arte aipatu ditugun metodologiak garatzeko tresna horietako bat dugu eta "pertsona osoa" kontuan hartzen du.

Denbora daramagu metodologia horiek aplikatzen, **Centro Internacional de Aprendizaje Cooperativo (CLIC)** eskutik, bai ikasgelan egiten dugun lanean, bai irakasle gisa lan egiteko moduan; izan ere, eredu kooperatiboa aldaketaren palanka da, daukagun guztia denon artean eraiki baitugu.



Centro Internacional de
Aprendizaje Cooperativo
Cooperative Learning International Center (CLIC)

IKASKETA KOOPERATIBOan ikasle kopuru txikirako taldeak asmo didaktikoan erabiltzen dira, hainbat helburu betetzeko bide:

- Ikasle guztien errendimendua handiagotzea.
- Ikasleen artean harreman positiboak ezartzea.
- Ikasleei garapen sozial, psikologiko eta kognitibo egokia lortzeko esperientziak eskaintzea.

Ikasketa kooperatiboarekin, irakaslea antolatzen duen eta taldean ikaskuntza errazten duen gidari bihurtzen da. Ikaslearen rola anitza da: eginbeharra azaldu, taldeen lana ikuskatu, ikasleen ikaskuntza maila ebaluatu, taldeen autoebaluazioak koordinatu.

Taldeak kooperatiboak izateko funtsezko bost osagai bete behar dira **Johnson & Johnson**-en¹ arabera:

- Elkarrekiko mendekotasun positiboa: taldekideek argi izan behar dute bakoitzaren esfortzuak ez direla onuragarriak berarentzat bakarrik, talde osoarentzat baizik. Bakoitzaren arrakastarekiko konpromisoa ez ezik besteen arrakastarekiko konpromisoa ere bada.
- Banakako ardua: taldekide bakoitzak berari dagokion lana erantzukizunez bete beharko du talde osoaren onurarako.
- Aurrez aurreko elkarrekintza: ikasleek eginkizun bat bete beharko dute elkarrekin, errekurtsoak partekatuz eta elkarri lagunduz, babestuz, adorea emanez eta zorionduz bata besteei ikasteko egiten dituzten ahaleginengatik.
- Pertsonen arteko eta taldeko gaitasunak: irakasgaiak ikasteaz gain ikasleek pertsonen arteko harremanak kudeatzeko beharrezko gaitasunak barneratu beharko dituzte: lidergoa, erabakiak hartzea, konfiantzako giroa sortu, komunikatu, gatazken kudeaketa, motibazioa.
- Taldeko ebaluazioa (behaketa, interbentzioa, prozesatu): taldekideek beraien helburu zein neurriraino betetzen ari diren eta harremanak zein punturaino diren eraginkorrak ebaluatu behar dute. Erabaki behar dute egiten dituzten ekintzetatik zeintzuk diren egokiak eta zeintzuk desegokiak, eta halaber, jokabide egokiak indartzeko eta desegokiak ekiditeko hautu egokia egin beharko dute.



Gaur egungo hezkuntzak oso erronka garrantzitsuari egin behar dio aurre: *ezagutzen ez dugun gizartean egokituko diren pertsonak trebatu eta hezi.*² Gure ikastetxeko ikaslea **pertsona AUTONOMOA, KONPROMETITUA eta SORTZAILEA**³ izatea nahi dugu, gure ustez, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun egokia emateko prest egongo delakoan gaudelako.



¹ D. Johnson, J. Johnson y E. Holubec. (Paidós 199) El aprendizaje cooperativo en el aula.

² Alfons Cornellá "Aprender, ¿para qué mundo?" esteka bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=pFpWa2Ml6ps> eta <http://keinnova.kristaueskola.eus/aprender-para-que-mundo/>

³ Jesusen Alaben Gidaliburu Pedagogikoa